

## HASIERAKO GASTUAK

Gure enpresan edo proiektuan kostu finkoak eta aldakorrak daude. Hau da, kostu finkoak ekoizpena aldatuta ere konstante mantentzen diren kostuak dira. Kostu aldakorrak edo aldagarriak, berriz, ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira, ekoizpenarekin batera handitzen direnak.



Gure enpresaren kasuan, kostu finkoak, lokalaren alokairua, kontratatu ditugun langileen soldatak izango ziren. Aldakorrak aldiz, tresneriaren balioa, optikei ordaindu behar dieguna gure produktuak izateagatik eta bazkideen, hau da, gure soldata; irabaziak kontuan izanda handiagoa edo txikiagoa izango lirateke. Gainera, InsatNorte enpresari ordaintzeko diru kantitate bat gorde behar dugu gure produktua aurrera eramateagatik eta hortaz berezi eta bakarria izatea lortzeagatik. Baita beste enpresa batzuei portzentai bat ordaindu behar diegu bere

kolaborazioarengatik, esaterako VisionLab.

Beste aldetik, enpresa funtziona dezan eta diseinu ugari eduki dezagun nahi dugun material berria gure poltsikotik ordainduko dugu. Baita, publizitatea beste nabarmen eta garrantzitsu kostu bat da. Gráficas Leioa enpresari diru-sarrererekin ordainduko diogu; beste hitz batzuetan esanda, kontabilitatean sartu beharko dela.



Online atala martxan jartzean, beste kostu bat gehitu behar

egingo diogu; banaketa. Horretarako, bidalketa kostu minimoak jartzea planteatzen ari gara kamioia, kaxak eta gidariari ordaintzeko.



Enpresa bat zabaltzerakoan, tasak eta zergak presente daude. Ez gara libratuko, beraz kostu finko horiek ordaintzeko bideak pentsatu behar ditugu zergak eta tasak hileroko ordaindu behar izango direlako.

Kostu guzti hauek hasieran handiak ez izateko, lokal ertain bat alokatuko dugu eta material merkeak erosiko ditugu. Merkeak baina kalitatezkoak. Hau da, kostuak murriztuko ditugu.